

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

EIBARKO UDALA

*Iragarkia: ordenantza fiskalen hasierako onarpena*

Udalbatzak, 2016ko martxoaren 29an egindako bilkuran, ondoren datozen Zergak eta Prezio Publikoen Ordenantza Arauemaileak aldatzeko erabakia hartu zuen.

- Ordenantza arautzailea, zerbitzu publikoak eskaini eta jardura administratiboak burutzeagatik ordaindu beharreko tasena.
- Udal eskoletan ematen diren klaseei dagozkien tasak.
- Udal musika eskolan ematen diren klaseei dagozkien tasak.
- Udal euskaltegia.

Hartutako erabakia eta horretarako hasiera emandako espedientea jendaurrean jartzen dira, Gipuzkoako Ogasun Lokalak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauko 16.1 artikuluan xedatutakoarekin bat. Horretarako, Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN eta Udaletxeko Iragarki Taulan iragarkiak jarriko dira, eta, era berean, artikuluko 2. zenbakiak eskatzen duenaren arabera, Gipuzkoan hedapen handiena duen egunkariren baten ere argitara emango da.

a) *Agiri horiek erakutsiko diren lekua:* Udal Idazkaritza.

b) *Aztertzeko eta, kasua balitz, erreklamazioak egiteko epea:* 30 lanegun, Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN iragarki hau argitara eman eta hurrengo lanegunetik hasita kontatzen, bulego orduetan.

c) *Erreklamatzeko legitimatuta daudenak:* uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauko 17. artikulua aipatzen dituenak.

d) *Aurkezteko lekua:* Udaletxeko Sarrera Erregistro Orokorra.

e) *Erreklamazioa aurkeztu behar zaion Organoa:* Udal Batzarrea.

Inolako erreklamaziorik egin gabe informazio hau jendaurrean edukitzeko epea igarotzerakoan, hartutako erabakia eta adierazitako dokumentuak behin-betiko onartutzat joko dira, beste erabakiren bat hartu beharrik gabe.

Eibar, 2016ko apirilaren 4a.—Alkatea. (2222)

AYUNTAMIENTO DE EIBAR

*Anuncio: aprobación inicial de ordenanzas*

El Pleno del Ayuntamiento de Eibar en sesión celebrada el 29 de marzo de 2016 acordó la modificación de Ordenanzas reguladoras de los Tributos siguientes.

- Ordenanza reguladora de tasas por prestación de servicios públicos y realización de actividades administrativas.
- Tasas por las enseñanzas impartidas en las escuelas municipales.
- Tasas por las enseñanzas impartidas en la escuela de música.
- Euskaltegi municipal.

El acuerdo adoptado, y el expediente al efecto instruido se someten a información pública en cumplimiento de lo dispuesto en el art. 16.1 de la Norma Foral 11/1989, de 5 de julio, Reguladora de las Haciendas Locales de Gipuzkoa, mediante publicación de anuncios en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa, en el Tablón de Edictos de la Casa Consistorial y también en un periódico de los de mayor difusión de Gipuzkoa según exige el número 2 del citado art.

a) *Lugar donde se halla de manifiesto el expediente:* en la Secretaría de este Ayuntamiento.

b) *Plazo para examinarlo y en su caso para formular las reclamaciones:* 30 días hábiles contados a partir del siguiente hábil al de la inserción de este anuncio en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa, en horario de oficina.

c) *Legitimados para reclamar:* los que relaciona el art. 17 de la Norma Foral 11/1989, de 5 de julio.

d) *Lugar de presentación:* en el Registro General de Entrada del Ayuntamiento.

e) *Órgano ante el que se recurre:* el Ayuntamiento en Pleno.

Una vez transcurrido el plazo reglamentario de esta información sin que se haya producido reclamación u observación alguna, se tendrán por definitivos los acuerdos adoptados y el Anexo de la Ordenanza modificada, sin necesidad de nuevos acuerdos.

Eibar, a 4 de abril de 2016.—El alcalde. (2222)